ARABAKO FORU ALDUNDIA
MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

LEGE ETA ADMINISTRAZIO ZERBITZUA

**IRAGARKIA**

**BEHIN BETIKO ONARTZEA ERAGINDAKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA**

**OKUPAZIOAREN AURREKO AKTAK ETA OKUPAZIO AKTAK EGITEA**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2024ko ekainaren 18an egindako bilkuran, 369/2024 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

***"A-4342 errepidean Manzanosko saihesbidea eraikitzeko proiektua, Arabako Erriberabeitiko udalerrian, Manzanosen, Madril-Hendaia lineako 468/571 kilometro puntuko trenbide pasagunea kentzeko" izeneko proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda jendaurrean egon den aldian aurkeztutako alegazioen erantzuna. Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharraren eta presako okupazioaren adierazpena. Kreditu atxikipena.***

*Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 7ko 712/2023 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion A-4342 errepidearen Manzanosko saihesbidea eraikitzeko proiektuari, zeina baita Manzanosen, Erriberabeitiko udalerrian (Araba), Madril-Hendaia lineako 468/571 KPko trenbide pasagunea kentzeko, bai eta proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda zehatz eta banakakoari eta hura jendaurrean jartzeko nahitaezko izapidea egiteari ere.*

*Jendaurrean egon den aldian, alegazio idazki tekniko eta juridikoak aurkeztu dituzte desjabetze espedienteko 3/000, 4/000, 9/000, 20/000 eta 22/000 finken inguruan, eta Errepide Zerbitzuak, Lege eta Administrazio Zerbitzuak eta Desjabetze Atalak haien gaineko txostenak egin dituzte, zeinak Bide Azpiegituren Zuzendaritzak onetsi baititu eta bere egin baititu Gobernu Kontseilu honek. Horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.*

*Aurreko izapidea beteta, onetsi behar da proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, ondoko hauek kontuan hartuta egina: aurkeztutako alegazioen erantzuna; eraginpeko finken titulartasuna, Gasteizko 3 zenbakiko Jabetza Erregistroak emandako jabari eta karga ziurtagirien arabera; eta eraginpeko finketako oraingo aprobetxamenduak.*

*Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.*

*Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakoa dela adierazi behar dela. Horren harira, Errepide Zerbitzuak jakinarazi duenez, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 7ko 334/2022 Erabakiaren bidez, hitzarmen honen testua onetsi zen: "Arabako Foru Aldundiaren eta Burdinbide Azpiegituren Kudeatzailearen (ADIF) arteko lankidetza hitzarmena, Arabako Erriberagoitiko udalerrian, Pobesen, Abando Indalecio Prieto-Casetas linea intermodaleko 160/484 kilometro puntuan, eta Arabako Erriberabeitiko udalerrian, Manzanosen, Madril-Hendaia lineako 468/571 kilometro puntuan, dauden trenbide pasaguneak kentzeko". Hitzarmena 2022ko ekainaren 28an izenpetu zen.*

*Madril-Chamartin-Hendaia lineako 468/571 KPko trenbide pasagunea A-4342 errepidearekiko bidegurutzeari dagokio, eta erdihesi katigatuak ditu. Zirkulazio askoko unea du gaur egun (AxT, 13.534), eta hura kentzea lehentasunezkoa da, bai Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioarentzat, dituen ezaugarri tekniko eta estatistikoengatik, trenbide segurtasuna dela eta, bai Arabako Foru Aldundiarentzat, bide segurtasuneko ageriko arrazoiengatik. Lehen aipatutako hitzarmenaren xede diren bi trenbide pasaguneak dira foru sarean oraindik geratzen diren eta kendu behar diren errepideetako trenbide pasagune bakar biak.*

*Arabako Foru Aldundiak hitzarmen honetan bere gain hartzen dituen konpromisoen artean, ibilgailuak igarotzeko saihesbidea eraikitzeko proiektua idaztea dago. Saihesbide hori beharrezkoa da Madril-Hendaia lineako 468/571 KPan, Manzanosen, dagoen trenbide pasagunea kentzeko.*

*Bestalde, Arabako Errepideen 2016-2027 Plan Integralak, Arabako Batzar Nagusiek martxoaren 20ko 6/2019 Foru Arauaren bidez behin betiko onetsiak, "Hiri saihesbideak" programaren barruan, "Saihesbideak" azpiprograman, A-4342 errepidean Manzanosko saihesbidearen jarduketa jasotzen du, 2022-2024 hirurtekorako lehentasunarekin, Erriberabeitiko Udalerrian (Araba), Manzanosen, dagoen Madril-Hendaia lineako 468/571 KPan trenbide pasagunea kentzeko.*

*Kendu beharreko trenbide pasagunea ADIFen Madril-Hendaia lineako 468/571 KPan dago. Trenbide pasagune horrek bi ondorio zuzen ekarri dizkie Manzanosko biztanleei: alde batetik, geltokiaren inguruan zerbitzu publiko batzuk garatzea; eta, bestetik, herria bi auzotan banatzea: Goiko auzoa eta Geltoki auzoa edo Beheko auzoa.*

*Herriari dagokionez, trenbide pasagunea Beheko auzoan dago, ADIFen geltokiaren ondoan, A-4342 auzo errepidean. ADIFen Madril-Hendaia linea Arabako Haranak eskualdetik igarotzen da.*

*Trenbide pasagunearen inguruko bide sarea honako errepide hauek osatzen dute nagusiki:*

- *A-1 autobia.*
- *A-3310 tokiko errepidea.*
- *A-4342 auzo errepidea.*
- *Melledes eta Manzanos arteko A-4340 errepidea.*

*A-1 autobia, Lehentasunezko Intereseko Sareari dagokiona, ADIFen Madril-Hendaia trenbidearen paraleloan doa azterketa eremuan, eta trenbidearen eta A-1 autobiaren artean Zadorra ibaia eta N-I errepide zaharra daude. Burgosko probintziako Trebiñuko Konderria inguratzen du, eta ez du trenbidearen gainetik igarotzeko inolako egiturarik.*

*Bestalde, A-3310 tokiko sareko errepideak A-1 autobiatik Beheko auzorako edo Manzanosko geltokirako sarbidea ematen du.*

*Bestalde, auzo sareko A-4342 errepideak trenbide pasagunea zehazten du eta Manzanosko Goiko auzorako —herrigunea— sarbidea ahalbidetzen du A-3310 tokiko bidetik.*

*A-4342 errepidea Arabako errepide sareko auzo sarean dago, eta 4,15 metro inguruko zabalera oso txikiko galtzada bakarra du.*

*Erantsi duenez, hitzarmen hori eta Arabako Errepideen 2016-2027 Plan Integrala betetzeko, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak "A-4342 errepidean Manzanosko saihesbidea eraikitzeko proiektua, Arabako Erriberabeitiko udalerrian, Manzanosen, Madril-Hendaia lineako 468/571 kilometro puntuko trenbide pasagunea kentzeko" izeneko proiektua idatzi eta onetsi du. Aurrez ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin zitzaion, eta aipatutako proiektuaren ingurumen inpaktuaren txostena egin zuen Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko diputatuaren abuztuaren 21eko 62/2023 Foru Aginduarekin amaitu zen.*

*Proiektu horretako obren bidez, nagusiki, Manzanosen, A-4342 errepidean saihesbide berri bat eraikiko da.*

*A-4342 errepidearen saihesbidearen trazadura 150 metro inguru iparralderago egitea planteatu da, egungo hiri egituratik kanpo joan dadin eta Manzanosen Erriberabeitiko hirigintza plangintza errespeta dezan.*

*Saihesbidea, hasieran, A-3310 errepidearekin lotzen da, trenbide azpiko pasabidea igaro ondoren, eta T erako elkargune kanalizatua definitzen da, eskuinera biratzeko falkekin. Saihesbide horren amaiera Melledes eta Manzanos arteko A-4340 errepidearekin lotzen da, Manzanosko Goiko auzoaren parean, eta 1.450 metro inguruko luzera aurreikusten da.*

*A-4342 errepidearen saihesbidearen oinplanoko trazadura eta enborraren altxaera 60 km/h-ko proiektu abiadurarako proiektatu da, indarrean dagoen araudian ezarritako gutxieneko baldintzak betez. Era berean, sekzio tipoak 3,00 metroko 2 erreik, 0,50 metroko bazterbideek eta 0,50 metroko gutxieneko bermek osatutako galtzada izan behar du.*

*A-4342 errepidearen trazadura berriak hartuko duen eremuan, gaur egun, nekazaritzako ustiategiak daude, gehienbat zereala lantzen dutenak, eta Zadorrara urak isurtzen dituzten hiru errekak zeharkatzen dute. Ustiategiak egungo A-4342 errepidearekin lotzen dira, Manzanos eta Leziñana Oka arteko lurretan dagoen landa bide baten bidez.*

*Oro har, proiektu honetan jasotako obrak honako bost jarduketa hauetan bana daitezke:*

- *Trazadura berria A-4342 foru errepidearen saihesbidean.*
- *A-3310 errepidearen zuzenketa eta A-4342 errepidearen saihesbidearekiko bidegurutzea.*
- *Manzanosko lotura bidea.*
- *Finketara sartzeko landa bidea lehengoratzea (eta 2+100 azpiko pasabidea).*
- *Zaldiaran erreka lehengoratzea.*

*Eta proiektuaren zati horiekin zerikusia duten jarduketa guztiak, hala nola luzetarako eta zeharkako drainatzea, seinaleztapen horizontala eta bertikala, eta ingurumena lehengoratzea.*

*Amaitzeko, adierazten du jarduketa horiek guztiek, proiektuak jasotzen duen saihesbidearen mugakide diren finketarako sarbideak berrantolatzearekin batera, dagozkien lehengoratzeak eginda indarreko araudiaren arabera, aukera ematen dutela egungo errepideko trenbide pasagunea kentzeko eta A-4342 errepideak gaur egun dituen segurtasun arazoak konpontzeko.*

*Obra horiek eginda, trenbide pasagunea kenduko da, erabiltzaile mota guztien zirkulazio baldintzak hobetuko dira, irisgarritasun baldintzak modu seguruan hobetuko dira, A-4342 errepidearen gaur egungo konfigurazioaren bide segurtasuneko arazoak konponduko dira eta Manzanosko herriguneko biztanleen bizi kalitatea hobetuko da.*

*Premiazko adierazpenaren izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 178.2 artikuluaren arabera.*

*Eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 360.185,77 euro da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.*

*Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, Autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.a)8. artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Errepideen ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek betetzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 2.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.*

*Erakunde honen barneko eremuan, desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda onesteko organo eskuduna Foru Gobernu Kontseilua da, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8.1.c).7. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.*

*Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.*

*Horregatik, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau*

***ERABAKITZEN DU***

***Lehenengoa.-*** *Erantzutea "A-4342 errepidean Manzanosko saihesbidea eraikitzeko proiektua, Arabako Erriberabeitiko udalerrian, Manzanosen, Madril-Hendaia lineako 468/571 kilometro puntuko trenbide pasagunea kentzeko" izeneko proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda jendaurrean egon den aldian aurkeztutako alegazioei, baietsiz edo ezetsiz, Errepide Zerbitzuak, Lege eta Administrazio Zerbitzuak eta Desjabetze Atalak emandako txostenen arabera.*

***Bigarrena.-*** *Onestea "A-4342 errepidean Manzanosko saihesbidea eraikitzeko proiektua, Arabako Erriberabeitiko udalerrian, Manzanosen, Madril-Hendaia lineako 468/571 kilometro puntuko trenbide pasagunea kentzeko" izeneko proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, zeina honekin batera doan eranskinean jaso baita.*

***Hirugarrena.-*** *Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.*

***Laugarrena.-*** *Adieraztea eraginpeko ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez desjabetzea izapidetzeko.*

***Bosgarrena.-*** *360.185,77 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuko 50106.G/453501/60000505 aurrekontu aplikazioaren kontura, eraginpeko ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.*

***Seigarrena.-*** *Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko titularrari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 15. artikuluak.*

*Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."*

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Erriberagoitia eta Erriberabeitiako Udaletxeetako lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeinik.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira (notario-ahalordea edo "apud acta").

Ez bada onartu nahi eskainitako zenbatekoa edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru hori Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko da, nahitaezko desjabetzearen legearen arautegiak 58-1 artikuluan jasotakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 18a- Bide Azpiegituren zuzendaria.- MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA.

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE E INFRAESTRUCTURAS VIARIAS

SERVICIO JURÍDICO-ADMINISTRATIVO

# ANUNCIO

## APROBACION DEFINITIVA DE BIENES Y DERECHOS AFECTADOS
## LEVANTAMIENTO DE ACTAS PREVIAS A LA OCUPACIÓN Y DE OCUPACIÓN

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el día 18 de junio de 2024, ha aprobado el Acuerdo 369/2024, cuyo texto es el siguiente:

***"Contestación de las alegaciones presentadas en la información pública de la relación provisional de bienes y derechos afectados por el "Proyecto de construcción de la variante de Manzanos de la carretera A-4342 para la supresión del paso a nivel de la línea Madrid-Hendaya, p.k. 468/571 en Manzanos, término municipal de Ribera Baja (Álava)". Aprobación de la relación definitiva de bienes y derechos afectados. Declaración de necesidad de ocupación y de urgente ocupación. Retención de crédito.***

*Por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral 712/2023, de 7 de noviembre, es aprobado el "Proyecto de construcción de la variante de Manzanos de la carretera A-4342 para la supresión del paso a nivel de la línea Madrid-Hendaya, p.k. 468/571 en Manzanos, término municipal de Ribera Baja (Álava)", así como la relación inicial, concreta e individualizada, de los bienes y derechos afectados por el mismo y su sometimiento al preceptivo trámite de información pública.*

*En el período de información pública han sido presentados escritos de alegaciones de carácter técnico y jurídico respecto de las fincas identificadas en el expediente expropiatorio con los números 3/000, 4/000, 9/000, 20/000 y 22/000 que, informados por el Servicio de Carreteras, el Servicio Jurídico-Administrativo y la Sección de Expropiaciones, son aceptados por la Dirección de Infraestructuras Viarias, asumidos por este Consejo de Gobierno, sirven de soporte y motivación al presente acuerdo y serán remitidos a las personas alegantes en orden a motivar la estimación o desestimación de sus alegaciones.*

*Cumplimentado el trámite anterior, procede aprobar la relación definitiva de bienes y derechos afectados por este proyecto confeccionada teniendo en cuenta la contestación a las alegaciones presentadas, la titularidad de las fincas afectadas conforme a las certificaciones de dominio y cargas expedidas por el Registro de la Propiedad número 3 de Vitoria-Gasteiz y los aprovechamientos actuales de las fincas afectadas.*

*Por otro lado, a efectos de la iniciación del expediente expropiatorio procede declarar la necesidad de su ocupación y adquisición a los efectos de expropiación, ocupación temporal, así como de imposición, modificación o extinción de servidumbres.*

*Respecto de la tramitación del expediente expropiatorio, esta Diputación Foral considera que debe tramitarse por el procedimiento previsto en el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa y, por ello, debe declararse la urgente ocupación. En este sentido, informa el Servicio de Carreteras que mediante Acuerdo 334/2022, de 7 de junio, del Consejo de Gobierno Foral, se aprobó el texto del "Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Álava y el Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF), para la supresión de los pasos a nivel situados en los pp.kk. 160/484 de la línea Intermodal Abando Indalecio Prieto-Casetas en Pobes, término municipal de Ribera Alta (Álava) y 468/571 de la línea Madrid-Hendaya en Manzanos, término municipal de Ribera Baja (Álava)". El Convenio fue suscrito con fecha 28 de junio de 2022.*

*En lo que se refiere al paso a nivel p.k. 468/571 de la línea Madrid-Chamartín-Hendaya corresponde al cruce con la carretera A-4342 y está dotado de semibarreras enclavadas. Cuenta en la actualidad con un elevado momento de circulación AxT (13.534) y la supresión del mismo es prioritaria tanto para el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, por las características técnicas y estadísticas del mismo, por motivos de seguridad ferroviaria, como para la Diputación Foral de Álava, por evidentes motivos de seguridad*

*vial, siendo los dos pasos a nivel objeto del convenio citado anteriormente los dos únicos pasos a nivel con carreteras de la Red Foral que quedan por eliminar.*

*Dentro de los compromisos que asume la Diputación Foral de Álava en este convenio está el de asumir la redacción del proyecto de construcción de la variante para el paso de vehículos, necesaria para supresión del paso a nivel sito en el p.k. 468/571de la línea Madrid-Hendaya, en Manzanos.*

*Por su parte, el Plan Integral de Carreteras 2016-2027, aprobado definitivamente por las Juntas Generales de Álava, mediante Norma Foral 6/2019, del 20 de marzo, contempla dentro del Programa "Variantes Urbanas", Subprograma "Variantes", la actuación de la variante de Manzanos de la carretera A-4342 con prioridad para el trienio 2022-2024, con el objetivo de eliminar el paso a nivel de la línea Madrid-Hendaya, p.k. 468/571, en Manzanos, término municipal de Ribera Baja (Álava).*

*El paso a nivel a suprimir está situado en el p.k. 468/571 de la línea Madrid – Hendaya de ADIF. Su existencia ha supuesto para la población de Manzanos dos consecuencias directas: por una parte, el desarrollo de una serie de servicios públicos en el entorno de la estación; y, de otra, su división en dos barrios, el Barrio de Arriba y Barrio de la Estación o de Abajo.*

*Respecto a la población, el paso a nivel se sitúa en el Barrio de Abajo, junto a la estación de ADIF, en la carretera vecinal A-4342. La línea Madrid – Hendaya de ADIF en esta zona discurre por la comarca de Valles Alaveses.*

*La red viaria en las cercanías del paso a nivel está constituida principalmente por las siguientes carreteras:*

- *Autovía A-1.*
- *Carretera local A-3310.*
- *Carretera vecinal A-4342.*
- *Carretera A-4340 Melledes-Manzanos.*

*La Autovía A-1, perteneciente a la Red de Interés Preferente, discurre paralela a la línea de ferrocarril Madrid-Hendaya de ADIF en la zona de estudio, estando entre la línea del ferrocarril y la autovía A-1 el río Zadorra y la antigua carretera N-I. La misma bordea el Condado de Treviño, provincia de Burgos, no disponiendo de ninguna estructura de paso sobre el ferrocarril.*

*Por su parte, la carretera de la Red Local A-3310 es la que permite el acceso desde la A-1 al Barrio de Abajo o de la Estación de Manzanos.*

*En cuanto a la carretera de la Red Vecinal A-4342, es la que define el paso a nivel y facilita el acceso al Barrio de Arriba de Manzanos, núcleo urbano de la población, desde la vía local A-3310.*

*La carretera A-4342 pertenece a la Red vecinal de la Red de carreteras de Álava y tiene una calzada única de ancho muy reducido de unos 4,15 metros.*

*Añade que para el cumplimiento del citado convenio y de lo previsto en el Plan Integral de Carreteras de Álava 2016-2027, el Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias ha procedido a la redacción y aprobación del "Proyecto de Construcción de la Variante de Manzanos de la carretera A-4342 para la supresión del paso a nivel de la línea Madrid-Hendaya, p.k. 468/571, en Manzanos, Término Municipal de Ribera Baja (Álava)", el cuál fue sometido previamente al procedimiento de evaluación de impacto ambiental simplificada, que culminó con la Orden Foral 62/2023, de 21 de agosto, de la Diputada de Sostenibilidad, Agricultura y Medio Natural, que formula el informe de impacto ambiental del referido proyecto.*

*Las obras de este proyecto principalmente consistirán en la construcción de una nueva variante en la carretera A-4342 en la localidad de Manzanos.*

*El trazado de la variante de la carretera A-4342 se plantea desplazado hacia el norte unos 150 m de tal forma que discurra fuera del entramado urbano actual y respete el planeamiento urbanístico de Ribera Baja en Manzanos.*

*La variante conecta en su inicio con la carretera A-3310, una vez pasado el paso inferior bajo la línea férrea, definiéndose una intersección en T canalizada, con cuñas para el giro a la derecha. El final de dicha variante conecta con la carretera A-4340 Melledes-Manzanos, a la altura del Barrio Alto de Manzanos, contemplando una longitud total de en torno a 1.450 metros.*

*Se proyecta el trazado en planta y alzado del tronco de la variante de la carretera A-4342 para una velocidad de proyecto de 60 km/h, cumpliendo con los requisitos mínimos establecidos en la normativa vigente. Asimismo, la sección tipo ha de contemplar una calzada compuesta por 2 carriles de 3,00 metros, arcenes de 0,50 metros, y bermas mínimas de 0,50 metros.*

*La zona a ocupar por el nuevo trazado de la A-4342 está actualmente ocupada por explotaciones agrarias dedicadas en su mayoría al cultivo de cereal y está atravesada por tres regatas tributarias del Zadorra. Las explotaciones se conectan con la actual A-4342 a través de un camino rural en tierras que discurre entre Manzanos y Leciñana de la Oca.*

*En términos generales las obras recogidas en este proyecto se pueden dividir en las siguientes cinco actuaciones:*

- *Nuevo trazado en variante de la carretera foral A-4342.*
- *Rectificación de la carretera A-3310 e intersección con la variante de la A-4342.*
- *Vial de conexión de Manzanos.*
- *Reposición del camino rural de acceso a fincas (y paso inferior 2+100).*
- *Reposición del arroyo Zaldiaran.*

*Y todas las actuaciones necesarias relacionadas con dichas partes del proyecto, como son el drenaje longitudinal y transversal, señalización horizontal y vertical, restauración ambiental.*

*Concluye que todas estas actuaciones, junto con la reordenación de los accesos a fincas limítrofes a la variante que contempla el proyecto, estableciendo las correspondientes reposiciones de los mismos de acuerdo con la normativa vigente, permiten la supresión del paso a nivel con la carretera actual y resolver los problemas de seguridad que presenta la carretera A-4342 en la actualidad.*

*Con la ejecución de estas obras se conseguirá la eliminación del paso a nivel con el ferrocarril, mejorar las condiciones de circulación de todo tipo de usuarios, mejorar las condiciones de accesibilidad de forma segura, resolver los problemas de seguridad vial que presenta la carretera A-4342 en su configuración actual y mejorar la calidad de vida de los habitantes del núcleo de Manzanos.*

*Este trámite de declaración de urgencia requiere acuerdo foral, debiendo ser acordada por este Consejo de Gobierno Foral según el artículo 178.2 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.*

*El presupuesto de la expropiación de los bienes y derechos afectados asciende a la cantidad de 360.185,77 euros, según informa la Sección de Expropiaciones.*

*La Diputación Foral de Álava es competente para la planificación, proyección, construcción y modificación de las carreteras de Álava, según disponen el artículo 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, y el artículo 8 de la Norma Foral 20/1990, de 25 de junio, de Carreteras del Territorio Histórico de Álava. Para el ejercicio de dichas competencias, la Diputación Foral podrá expropiar los bienes y derechos necesarios, tal como establece el artículo 2.1 de la Ley de Expropiación Forzosa.*

*En el ámbito interno de esta institución, el órgano competente para aprobar la relación definitiva de los bienes y derechos afectados por la expropiación corresponde a este Consejo de Gobierno Foral, por aplicación de lo establecido en el artículo 8.1.c).7 de la Norma Foral 10/2023, de 15 de marzo, de Gobierno, Organización y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava.*

*Visto el informe de la Dirección de Finanzas y Presupuestos dando cuenta de la existencia del crédito preciso.*

*En su virtud, a propuesta del Diputado de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias y previa deliberación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada por el mismo el día de hoy,*

***ACUERDA***

***Primero.-*** *Contestar las alegaciones presentadas en la información pública de la relación provisional de bienes y derechos afectados por el "Proyecto de construcción de la variante de Manzanos de la carretera A-4342 para la supresión del paso a nivel de la línea Madrid-Hendaya, p.k. 468/571 en Manzanos, término municipal de Ribera Baja (Álava)", estimándolas o desestimándolas según lo informado por el Servicio de Carreteras, el Servicio Jurídico Administrativo y la Sección de Expropiaciones.*

***Segundo.-*** *Aprobar la relación definitiva de bienes y derechos afectados por el "Proyecto de construcción de la variante de Manzanos de la carretera A-4342 para la supresión del paso a nivel de la línea Madrid-Hendaya, p.k. 468/571 en Manzanos, término municipal de Ribera Baja (Álava)", contenida en el anexo adjunto.*

***Tercero.-*** *Declarar la necesidad de ocupación y de adquisición de los mismos, a los efectos de expropiación, ocupación temporal, así como de imposición, modificación o extinción de servidumbres.*

***Cuarto.-*** *Declarar la urgencia en la ocupación de los bienes y derechos afectados para la tramitación de la expropiación por el procedimiento de urgencia previsto en el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa.*

***Quinto.-*** *Consignar el importe de 360.185,77 euros para atender a las cantidades derivadas del abono del justiprecio de los bienes y derechos afectados con cargo al Presupuesto de Diputación Foral de Álava de 2023 prorrogado para 2024, aplicación presupuestaria 50106.G/453501/60000505.*

***Sexto.-*** *Facultar al titular del Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias para que pueda realizar las posibles ampliaciones y/o modificaciones de superficies necesarias para la ejecución de este proyecto, con el límite establecido en el artículo 15 de la Norma Foral 23/2022, de 20 de diciembre, de Ejecución del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava para el año 2023.*

*Contra el presente acuerdo, que agota la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a la notificación, o bien, con carácter previo y potestativo, recurso de reposición ante este Órgano en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la notificación.* "

Asimismo, se convoca a los titulares que figuran en la relación adjunta para que comparezcan en los locales de los Ayuntamientos del Ribera Alta y Ribera Baja en el día y hora que figuran en la misma, a fin de que previo ofrecimiento de la cantidad a que asciende el depósito previo a la ocupación e indemnización por rápida ocupación, se proceda a la ocupación de las fincas.

Si se desea percibir el importe a que ascienden dichos conceptos, que son a cuenta del justiprecio definitivo, deberá aportarse los títulos acreditativos del derecho, el documento nacional de identidad y poder suficiente en el supuesto de que a dicho acto comparezcan representantes legales (poder notarial o "apud acta").

En el caso de que no se desee percibir el importe ofrecido o bien no puede acreditarse de forma fehaciente la titularidad del bien expropiado o la personalidad con que se comparece, dicha cantidad será consignada en la Caja de Depósitos de la Diputación Foral de Álava, conforme al artículo 58-1° del Reglamento de la Ley de Expropiación Forzosa.

Vitoria-Gasteiz, 18 de junio de 2024.- La directora de Infraestructuras Viarias.- MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA.